

Noaia!!!

www.noaia.com



Hastera doaz Santixabelak!





MASZADA
NATURAL THERAPY

UDA HONETAN...

Bolumena, pisua, moldeaketa, errealfirmazioa eta tonifikazioa lantzen dituen bi tratamendu ezin hobekak ekarri ditugu:

Revolution

Zelulitis (Entxarkatiba, edematosoa, fibrosoa, enkistada) lantzen duena.

MINCEUR INTENSIVE
Gizentasun morbidoa eta menopausia lantzeko.



Kalitatezko produktuekin estilismoa eta estetika lantzen ditugu

Egun osoa irekita! Nagusia 8, USURBIL 943 36 36 41



**USURBILGO
LANBIDE
ESKOLA**

☎ 943 36 46 00

www.lhusurbil.com

Erdi eta goi mailako zikloak A eta D Ereduak

Administrazioa eta kudeaketa

Elektrizitate-elektronika

Fabrikazio mekanikoa

Ura eta energia
Produktio zerbitzu eta manten.



Honako honen bila bazabiltza: Kalitatezko irakaskuntza, lanpostu bat topatzeko erraztasuna, enpresa praktikak, atzerrian praktikak, ekipamendurik berriena.

MATRIKULA ZABALIK uztailaren 5etik 11ra



Albistea iruditan !!

Ez daude pelukerian, Sutegin daude

Urtean zehar ikastetxe barruan buruturiko lanketa gizarteratzeko erakusketa antolatu zuten joan den astean, Hasierako Lanbide Prestakuntza Programetako arduradunek. Ikasketa ziklo hauetako ikasleak, sukaldaritza eta ile apainketa prestakuntza jaso dutenak edo ikasten dihardutenen argazki bilduma ikusgai egon zen, besteak beste. Gaur egun ikasle direnak ere bertan ziren. Sukaldaritzakoek eurek prestatutako pintxo gozoak das-tatzeko aukera eskaintzen zuten. Ile apaintzaile izateko bidean direnek berriz, zuzeneko erakustaldiak egin zituzten. Atallun kokatua dagoen ikas-tetxean, 2012-2013 ikasturterako



IKASITAKO ERAKUSTEN ARITU ZIREN HASTAPEN TAILERRETAKO IKASLEAK.

matrikulatzeko epeak zabalik jarraitu-
du, uztailearen 13ra arte. Informazio

gehiago: 943 360 465 edo lhi.usur-
bil@gmail.com

Telefono interesgarriak

Udala	943 371 951	Sutegi Udal Liburutegia	943 360 692	DYA	943 464 622
Atez ateko bulegoa	943 369 113	Zumarte Musika Eskola	943 371 594	Gurutze Gorria	943 272 222
Udaltzaingoa	943 361 112	Etumeta AEK Euskaltegia	607 609 379	Emergentziak	112
Udal zerbitzuak (Brigada)	943 370 148	Kalezar Eguneko Zentroa	943 365 249	Gonzalez Ehorztetxea	943 362 163
Gizarte Zerbitzuak	943 377 110	Gure Pakea Zahar Egoitza	943 368 770	Gipuzkoa Donostia Kutxa	943 361 202
Diputazioa - Basetxea	943 361 215	Gure Elkartea Zahar Egoitza	943 371 751	Euskadiko Kutxa-Laborala	943 364 740
Bake Epaitegia	943 372 336	Arrate Zahar Egoitza	943 366 340	Banco Guipuzcoano	943 370 006
Udarregi Ikastola	943 361 216	Taxia (Angel)	607 928 770	Banco Popular Español	943 370 411
Haur Eskola	943 374 061	Taxia (Joxe Kruz)	677 373 466	BBVA	943 377 155
Zubietako Lanbide Eskola	943 364 600	Eusko Tren	943 470 976	Caja Rural Kutxa	943 368 842
Zubietako Herri Batzarra	943 372 077	Korreos - posta zerbitzua	943 362 894	Argindarra - Iberdrola	901 202 020
Hastapen tailerrak	943 360 465	Anbulategia	943 362 013	Gas naturala - Naturgas	902 123 456
KzGunea	943 023 684	Oa botika	943 376 076	Telefonica	1004
Oiardo Kiroldgia	943 372 498	Iturralde botika	943 363 395	Euskaltel	900 840 840

Noaua!

NOAUA! Kultur Elkartea Bordaberri 3 Eguzkitzaldea - 20.170 Usurbil 943 36 03 21 / elkarte@noaua.com / www.noaua.com

Jendaurreko ordutegia: 10.00-14.00 / 16.00-19.00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria: Ana Aizpurua. Aldizkariko koordinatzailea: Imanol Ubeda. Idazkaria: Aizpea Aizpurua. Publizitatea: Bea Alda, publicitatea@noaua.com.

Erredakzio kontseilua, erredakzioa@noaua.com: Imanol Ubeda, Aritz Gorriti, Aizpea Aizpurua. Banaketa: Lourdes Kamino, Olatz Rezola, Ainara Arnaiz.

Laguntzaileak: Lontxo Zubiria, Maria Angeles Arruti, Ainara Arnaiz, Unai Aizpurua, Maria Jesus Urbietta, Maddi Galbete, Ana Urdangarin, Eneko Harreguy, Maddi Zaldua, Iñaki Larrañaga, Pako Agudo, Jon Etxabe, Alazne Begiristain, Denis Elortza, Pello Aranburu, Xabier Aranburu, Inma Balda, Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi, Maialen Unanue, Ugaitz Agirre, Joxe Piñas, Unai Agirre, Idoia Torregarai eta Udarregi ikastola.

Tirada: 2.800 ale. Lege-Gordailua: SS-668-96 - ISSN: 1136-6818. Inprimategia: Antza. Zirkuitu Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.




Usurbilgo Udala



Euskal presoak



Euskal Herrira!



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



ARITZ GORRITI

Ezetzean, noiz arte?

Erantzun bat ezezkoa denean, proposamen bat ezez-tatzerakoan, jarrera ezkor bat adierazten dugunean, ezkortasunak beti du atzean agerikoagoa edo ezkutuko den arrazoiren, egoeraren edo azalpenen bat. Une konkretu batean emandako halako erantzun bat, gustuko ez dugun zerbaiten aurreko bat bateko erreakzio hutsa izan liteke agian. Edo ez, akaso ezezkoan tematzen gara, estuegia izan daitekeen loturaren bat egon liteke ezetzari beste ezetza gehitzeko, guztiaren gainetik ezezkoari eusteko, denbora igaro, egoera bera aldatu edota norbere aldartea desberdina izan arren, ezetzean jarraitzeko.

Hamarkada bat, hasiera batean gauzatu gabe zeuden hondakinak kudeatzeko alternatibei aurkotasuna adierazten, hiru urte jada alternatibak gauzatzen hasi zirenetik ukazina den errealitatea desitxuratzen. Aldaketetara ohitzea kostatzen omen zaigu denoi, egoera berrietara egokitu beharra izaten dugu. Eta horretarako sendagaia ere badugu, pazientzia eta denbora. Baina ez al dira gehiegixko, hiru urte, lau udalerrri gipuzkoarretan lortu diren emaitzak oraindik gutxien jarraitzeko?

Egun, inoiz baino argiago esan liteke, karta guztiak mahai gainean daude jada. Hala behar ez lukeen arren, "jokoa, azken partida garrantzitsuari" ekin zaio. Gai honetan, fitxak mugitzen hasiak dituzte denek, etorkizunerako Aldundiak "ibilbide orria" aurkeztu zuenetik. Erantzuna? Batzuen ezezkoa, dimisio eskaerak...

Zalaparta argi eta garbi. Baina zer dago benetan horren guztiaren atzean? Zerbait galtzeko beldurra? Aldaketari beldurra? Zergatik hainbeste interes Zubietan inork nahi ez duen azpiegitura bat eraikitzen alde egoten jarraitzeko?

Soka tenkatzen ari da. Ikusi beharko zer aldera doan. Onenak irabaz dezala esatera nindoan, baina ez. Logikak, arduraz eta zentzuz jokatzek, herritarren borondate eta aldarrikapenak argiak direnez, dirudienek batzuentzat denak balio duen joko politikoaren aurrean nagusitu daitezela horiek. Behingoz bada ere.

Krisialdi garai honetan, herritarroei helarazten zaizkigun beldur mezuek indar handia dute. Gehiegi, gauza onerako eta hortik, batek baino gehiagok probetxu ederra ateratzen dute. Bitxia dirudien arren, hondakinen kudeaketaren alorrean, errausketaren aurrean planteatzen ari diren alternatibek aurka helarazten ari diren mezuak ez al dira indargabetzen ari? Ibilbide motza baitu, aurkariak egiten duenak kaosa eta galera baino ekarriko duela dioenak soilik. Are gehiago, bide laburrago du, norberak bere proposamena herritarren aurrean jada "saldu" ezin eta kontra egitea baino geratzen ez zaionean.

Egungo errealitatearen aurrean, ezetzean jarraitzen dutenek, dirudienek, bide geroz eta motzagoa dute. Galdera inozoegia agian; jarreraz aldatuko ote dute?

Imanol Ubeda - Maialen Unanue - Luis Aranalde - Ugaitz Agirre - Aritz Gorriti - Nerea Zinkunegi - Joxe Piñas - Unai Agirre - Idoia Torregerai

N-634ko segurtasuna hobetzeko eskaera, Usurbilgo PSE-EEtik

Udalerria alderik alde zeharkatzen duen N-634 errepideko segurtasun neurriak hobetzeko inplikazioa eskatu dio Usurbilgo PSE-EE alderdiak Gipuzkoako Foru Aldundiari. Prentsa ohar bidez zehaztu dutenez, honako lekuotan proposatzen dituzte hobekuntzak; Aginagan, Txokoalden, Txikiardiko geltoki inguruan eta Ugaldea industria gunerako sarreran. Txikiardiko geltokira-

ko, semaforoak, argiteria eta ikusgarritasuna hobetzea eskatzen dute. Batzar Nagusietako PSE-EE taldeak mugikortasun diputatu Larritz Ugarteri gai honen inguruan galdetu diotela berri eman dute. Ugartek hobekuntza proiektuak egin behar direla erantzun dietela jakinarazi dute. PSE-EEren arabera, 2012ko aurrekontuetan geltokiak hobetzeko partida ere badela dio Ugartek, baina hobetu

beharrekoak geltoki asko izanik, Aldundiak Txikiardiko geltokiko berritzeko datarik ez du jarri. Horregatik, Aldundiari presioa egiten laguntzea eskatzen dio udal talde sozialistako bozeramaile Ricardo Crespok Usurbilgo Udalarari. "Nork babes-ten ditu oinezkoak?" galdetzen du Crespok. Bide segurtasunaren aurrean, Aldundiak dirua lehenetsi duela dio zinegotzi sozialistak.

JE JON ELORZA
IGELTSERITZA OROKORRA
Obrak eta erreformak
661 804 688
 San Esteban 5, baxua USURBIL jon.elorza@hotmail.com

Javier Orbegozo
 ·ITURGINTZA
 ·GASA ·BEROKUNTZA
659 602 789
 943 37 29 37
 Erreka-txiki 13, 3.esk USURBIL

Andoni Errazkin
Xukin
 igeltsaritza orokorra
 Barne eta kanpoko lanak
USURBIL
 ☎ 663 08 76 71 • 943 24 34 65

SANTUENEA

PAKO AGUDO

Liga agurtu eta festak hasi



Urtea aurrera doa eta udan sartu berriak gara. Ikasketak alde batera utzi, oporrak begiz jo eta ia urte guztia irauten duen kirol ligak eta konpetizioak amaituta. Joan den larunbatean futbolekoiei eta eskubaloikoiei egokitu zitzaigun 2011-2012 denboraldiari amaiera ematea. Urte askotan zehar eskubaloia oso garrantzitsua izan zen gure auzoan eta oraindik ere bada. Auzotar asko elkartu ginen egunean zehar egin ziren eskubalo partidak jokatzeko eta gero Aginaga sagardotegian egin zen afarian ere. Topagune polita auzoan jokatzeko partidak gogoratzeko eta Santuenean sortzen zen giro berezi hura berriro ere memoriatik atera eta eguneratzeko. Kirola bukatu eta festak hasi. San Juanak pasatzen eta Santixabelen zain garen egun hauetan, auzoko gazteek erreleboa hartu eta elkartekoan laguntzaz auzoko festak ere antolatzen hasiak dira. Oraindik kontzertuak eta ekitaldi batzuk zehazteko izan



arren, festak itxura hartzen ari dira. Irailaren 14,15 eta 16an izango dira aurten, auzoarekin batera berritzen ari diren festak. Besterik gabe, udaz gozatu eta hurrengora arte!

ZUBIETA

PELLO ARANBURU

Esne mamitan hazi ditugu



Baina zazpi urte eskasak etorri dira ondoren, belar motxekoak. Eta gazteak hasi dira lanean. Errauskailuaren kontra protestan parranda ondoren gogorra izaten da, noski, Zubietako festak prestatzen diru gutxiagorekin, lan kaskarren bila batere aurkitu gabe, eta aurrera ari dira, batzuetan gogoia ilun badute ere. Ez dute denetan asmatuko beren aurrekoek askotan bezala, baina egunetik egunera gero eta gehiago saiatzen dira, eta ez da gutxi. Aurten, festetarako dirua lortzeko beraiek arduratu dira San Juan afariaraz. Festetan parte hartuko dute, antolaketetan eta oholntza gainean. Diru gutxi dagoenean, haiei ere argitzen zaie burua. Besteoi, laguntzea dagokigu. Orain dela gutxi, gazteak ikusi ditugu Zubieta alderik alde korritzen sinadurak biltzeko, zabor kontuak direla eta. Ez da langintza goxoa. Beste batzuk, umeak zaintzen ere ibiliko dira udan. Ez daude egonean egoteko. Eta guzti hori, ikasketetan aurrera eginez, maitasun kontutan ktramilatuz, udako parrandetan dantzan...



KALEBERRI

ANA URDANGARIN

Santixabelei begira!



Urteko seigarren hilabetea, ekainean sartuak gara jada eta festa giroan murgilduta gaude!!! Kalezarko San Joanak lehendabizi, inguruko herri askotan ospatzen dira eta baita Kalezarko auzoan ere!!

Eta denak orain herriko festetan, Santixabeletan dugu gogoia, aurtengoan oso programa berezia diseinatu digu Intzak, originala da benetan.

Kolorez beteriko paleta baten artean ditugu aurten herriko festak, ez dira horrenbeste egun baina bada aste-bukaera tartean, eta astelehena, Santixabel eguna ere jai, izango da heldu eta gazteentzat zer eginik bai!!!

Aukeratzen jakin behar abaniko zabala dago eta!!!!!! Denoi animatu nahi nizueke herriko festetan parte hartu eta gozatzera!!!

Urtean behin dira eta topera bizitzera merezi du eta!!! Ondo pasa Usurbilgo Santixabelak eta ikusiko garelakoa agurtzen naiz!!!

ATXEGALDE

AINARA ARNAIZ

Badatoz, Ixabel eta konpainia



Ez da asko falta, motorrak berotzen hasi gara Kalezarko San Juanekin, larunbatean festa izugarria izan zen Euskal Selektzioaren alde Anoeta futbol zelaian, igandean Irujo eta Haimarren arteko norgehiagoka, baita Usurbilgo pala txapelketako finalerdiak ere...eta horrela jarraituz gero festak iristerako deskantsatzeko denborarik ez dugu izango! Aurten festen egitaraua sorpresaz beterik datorrela, zurrumurrak ugariak dira herritarren artean, maskotarekin ere asmatuko duenik izango ote da? Ostegunetik astelehena bitartean izango dugu zer eginik, zer jan eta edanik, goizetik arratsaldera eta gauak berriz goiz bilakatuko zaizkigu konturatzerako.

Jaiak hasi bitartean bada auzoan nabaritutako dugun aldatetako bat, udaran sartu garela hain zuzen. Ikastolari agur agur esan baitiote ikasleek, datorren kurtsora arte! Oporrak, opor luze eta amaigabeak dituzte orain aurretik, eta hauek hasteko modurik hobereana badakite zein izango den. Gora Usurbilgo Jaiak!! Gora Ixabel!!!

Hamaikabat alderdiaren balorazioa, legealdiko lehen urtean

“Gobernuak ez du iniziatibarik”

Legegintzaldiaren lehen urtea bete da. Aitzakia hau baliatuz, udalbatzan ordezkatuta dauden alderdien balorazioak jasotzen ari gara. Aurreko astean Aralarreko zinegotziekin izandako solasaldia argitaratu ondoren, hemen duzue Luismari Ormaetxea Hamaikabat-eko zinegotziarekin e-mail bidez egin dugun elkarrizketa.

NOAUA! Legealdi berria abiatu zenetik urtebete igaro da. Nola joan da lehen urte hau?

Luismari Ormaetxea. Nire bosgarren legealdia da; eta egia esan behar badizut, lasaiena. Lasaiena, udal dinamika, udal gobernu, zeharo geldirik dagoelako. Ez digute lanik ematen! Gobernuak ez du iniziatibarik, ez du lan programarik, eta baldin badu kaxoi batean du zeren ez da praktikan ikusten. Inoiz baino batzorde gutxiago egiten dira, inoiz baino gai gutxiago jorratzen; eta, hiru politiko soldatarekin.

N. Bilduk gehiengo osoa lortu zuen aldetik, zer nolakoa da oposizioko alderdien lana? Hartuemana egokia da gobernuaren eta oposizioko taldeen artean?

L. M. O. Harremani buruz galdetzen badidazu, aurreko alkate eta gobernuarekin alderatuz, zaila zen okerragoak izatea. Hau esaten dizut nik eta aurreko legealdian alkatearekin hartu-emanak izatea tokatu zaion ia edozein udal langile, herritar, enpresa edo tekniko.

HEZKUNTZA ARLOAN

“Hamaikabaten apustua eskola publiko bat izatearena da”

Beraz, oraingo alkateak oso erraza izan du udal tentsioa apaltzea.

Udal lan dinamikaz galdetzen ari bazara, lehen erantzun dizut: zertaz aritu aurkeztu ez badigute, ika-mikarako eta adostasunetarako aukera gutxi.

Gehiengo osoa izatea ez da asko nabarmendu zeren Bildu eta Aralarrekin 9 zine-



LUISMARI ORMAETXEA, HAMAIKABAT ALDERDIKO UDAL ZINEGOTZIA.

gotzi batzen dituzte; denok dakizkigu elkarren mugak eta aldeak non dauden. Hori bai, *rodilloa* pasa behar zenean alkatesak eta bere gobernuak ez du zalantzarik izan; eta, ez da gehiago erabili, beharrez ez delako aurkitu.

N. Eraikin berria egiteko proiektua aurkeztu zuen Ikastolak. Garai beretsuan, eskola publikoa eskatzeko lan-talde bat ere osatu zen herrian. Badirudi ikastolaren proiektua *impasse* egoeran dagoela. Zein da Hamaikabaten planteamendua alor honetan?

L. M. O. Beren ikuspegia zehazten joan diren neurrian Usurbilgo Hamaikabat bat dator “Aukera” plataformarekin, Usurbilen eskola publikoa izateko aukera eskatzen duen plataformarekin. Hortik aurrera adierazi gure iritzia hauteskunde programan finkatu genuela zehatz mehatz eta irakurgai dagoela www.h1usurbil.net blogean.

Hamaikabaten apustua eskola publiko bat izatearena da. Hezkuntza programa hobeak eskaintzeko aukera ematen duela -baita ikastolan ere-; udalerraren hazkunde medio, etorkizuneko hezkuntza beharrei erantzungo diolako; famili asko egoera ekonomiko larrian daudelako eta

beste askok ere ikastola pribatuaren programa pedagogikoarekin ez datozelako bat. Hamaikabaten apustua bi hezkuntza-eredu ezberdinen arteko elkarbizitza harmonikoa lortzea da.

Hau argiturik, salatzea da “ezker abertzalearen” azken bi gobernuen jarrera. Xabier Mikel alkate zela, inolako iritzi kritikorik gabe ikastolak aurkeztu zuen makro-proiektu bat onartuz, udalaren etorkizun ekonomikoa guztiz baldintzatuz eta populismo elektoral batean 2013rako ikastola berria egina izango zela zabalduz; eta Mertzxerena, jakinik ikastolak berak bere proiektua zalantzan jartzen zuela, 600.000 eurotik gora aurrekontuetan onartuz, ustezko ikastola berriaren alde.

Bestetik salatzea da gaur egungo udal gobernuaren noraeza. NOAUaren aurreko alean Aralarreko zinegotziek adierazten zuten eskola publikoaren gaia Hezkuntza batzordean landuko zela; zuzen. Baita ere frakasotzat kalifikatu zuten parte hartzearen batzordea; zuzen. Ba, badirudi, udal politika NOAUaren arabera eta beste blogen arabera dabilela; zeren, aldizkaria kaleratu eta egun berean esaten zaigu Hezkuntzaren gaia ez dela Hezkuntza batzordean landuko baizik Parte hartzearen batzordean. Ez dugu gobernu serio bat.

“Ugartondo eta Olarriondo ez dira egiten borondate politiko batengatik”

NOAUA! Hezkuntzarekin ere lotuta dago kirol eskaintza. Oiardo kiroldegiaren inguruko azterketa finantziario bat egitea eskatu zenuten. Zer dela eta? Kezkatzekoa da Kirol Patronatuaren egoera ekonomikoa akaso?

Luis Mari Ormaetxea. Oso kezkatzekoa. Dirutza bat joaten da urtero zerbitzua mantentzeko. Egin den auditoriak egoera oso larriak agerian jarri ditu; baina ezin dut gehiago publiko egin.

N. Etxebizitza arloari dagokionez, Agerreazpi eta Sekañako etxebizitzentzako giltzak epe erdira banatuko ei dituzte. Ugartondoko proiektua, ordea, zu alkate zinen garaitik dator baina badi-rudi geldirik dagoela. Gai honen inguruan Udala egiten ari den kudeaketaz zein balorazio egingo zenuke?

L. M. O. Dakidanez, gaur egungo udalak aurrekoak martxan jarri zituen jarraipen bat ematen ari da, besterik ez.

Ugartondoko egitasmoa bereziki mingarria da niretzat. Oso aurreratua utzi genuen eta “ezker abertzalearen” erabaki politikoz geldirik dago. Aitzaki guztiak jarriko dituzte: krisi ekonomikoa, promotoreen dirunahiak... Ugartondo eta Olarriondo ez dira egiten borondate politiko batengatik.

LUISMARI ORMAETXEA

“Erresidentzia ere hor dugu, geldirik, “ezker abertzalearen” beste maniobra elektoral bat”

Behin eta berriro ematen digute hasiera data bat –azkenengoa iazko udazkena– baina ez da betetzen, dagoneko udaran sartuak gaude eta obrak ez dira hasten. Hasi behar denean hasiko da, eta ni, oso pozik.

N. Krisiaren eragina zein mailatan igartzen da herrian? Uste duzu Udala ari dela neurri egokiak hartzen? Formazioan, laguntza sozialetan...

L. M. O. Krisia gogor jotzen ari da



“UGARTONDOKO EGITASMOA BEREZIKI MINGARRIA DA NIRETZAT”,
LUIS MARI ORMAETXEAREN HITZAK DIRA.

Usurbilen. Eta hori baieztatzen duten adierazle ezberdinak ditugu: langabezi tasa mailarik altuenetan gaude, etxebizitza sozialetarako izena ematen duten herritar kopurua, babes ofizialeterako izena eman eta gero atzera egin behar, haur eskolan matrikulazio jaitsiera, larrialdi dirulaguntza eskaeren egoera, eta abar.

Udal gobernuaren lehenasunen artean gai hau dagoenik zalantzak ditut. Aurtengo aurrekontuak nahiko kontinuitate izan dira eta kontutan izanik aurrekontuko hainbat partida bigarren

mailakotzat kontsidera genitzakeela, laguntza sozialen esparrua ez da nabarmenki indartu. Partida batzuk desagertu egin dira zuzenean: urtero 8 – 10 lagun kontratatzen ziren hilabete batzuetarako aurretik jasotako prestakuntza indartzeko eta esperientzia ziurtatzeko. Aurten ez.

Erresidentzia ere hor dugu, geldirik, “ezker abertzalearen” beste maniobra elektoral bat. Egingo dela, egingo dela, eta gero batere ez.

Herri mailan, familiari esker, instituzio sozial moduan ulertuta, ari gara aurre egiten krisiaren ondorioei.

Udalaren egoera ekonomikoa larria dela uste du

N. Eta Udala bera zein egoeratan dago? Zorpetze maila handia duela uste al duzu ala egoera jasangarria al da?

L. M. O. Teknikoki, zorpetze maila txikia du eta guztiz jasangarria.

Beste kontu bat da zein egoera ekonomikoan dagoen eta zein egoera finantziarioan dagoen. Une honetan Euskal Herriko Kontu Epaitegia auditoretza bat egiten ari da, udalak eskatu gabekoa, eta iritzi sakonago bat emateko moduan izango naiz hilabete barru.

Egoera ekonomikoa larria da, zeren ez baditu ajustatzen diru-sarrerak gastuekin, zorra seguru; guztioi gertatzen zai-

gun bezala. Ez da ekonomian Nobel sariduna izan behar hori ulertzeko.

Egoera finantziarioa oso larria da. Likidez arazoak daude, fakturak berandu ordaintzen dira behar den momentuan kutxan ez dagoelako dirua.

Eta egoera hau, Xabier Mikelek utzi duen “marroia” da.

Azkenik esan, badirela gertaera batzuk ikertzekoak direnak, eta alkate berriaren inizatibaren zain nagoela. Adibide bat: nolatan Xabier Mikelen utzikeriaz 200.000 euro baino gehiago galdu dira (eskatzea ahaztu zitzaielako), Eusko Jaurlaritzatik espero zirenak, Saikolako hezegunea gauzatzeko?

“Batzar Nagusiekiko errespetu falta adierazten ari da Bildu”

NOAUA! Hondakinen inguruko plan eguneratuaren berri eman zuen aurreko astean Foru Aldundiak. Iaz arte, Gipuzkoako Batzar Nagusietan ere izan zinen, batzarkide moduan. Egunotan Bilduk egin duen proposamenaren inguruan zer iritzi duzu?

Luisuari Ormaetxea. Batzarkide ohi bezala galdetzen didazu, hau da, botere legegileko partaidea. Ikuspegi honetatik adierazi behar dut Bildu Batzar Nagusiekiko errespetu falta adierazten ari

dela. Hondakinen inguruko plana Batzar Nagusietako eskumena da, eta ez Diputazioarena edo eskuordetzen den beste edozeinena, zeren hauek botere exekutiboaren atalak lirateke.

Bilduk bere demokrazia kultura eza azaltzen ari da kasu honetan. Botere legegilea eta botere exekutiboa nahasten ditu. Nahasmen interesatua gainera, zeren Batzar Nagusietan ez du gehiengoa lortzen, adostasunetara iristeko gaitasun eza erakutsiaz.



“ADOSTASUNERA IRISTEKO GAITASUN EZA” EGOZTEN DIO BILDURI.

“Elkarbizitza ez da lortzen ETA desagertuaz soilik”

NOAUA! Hamaikabat ez zen aurkeztu azken hauteskundeetan (Madrilgo Gortetara). Aurrera begira, zein izango da alderdi honen izenean ari zareten ordezkarien etorkizun politikoa? Zein etorkizun izango du korrante politiko honek, hausnarketa hori egin al da Hamaikabaten?

Luisuari Ormaetxea. Lehenik. Hamaikabat ez da korrante politiko bat. Alderdi politiko bat da. Horrek adierazi nahi duen guztiarekin; beraz, errespetu pixka bat.

Bigarrena. Alderdi politikoak ez daude behartuta hauteskunde guztietara aurkeztera. Gure herritarren mesedera baldin bada gure presentzi elektoral gaiztatuko dugu.

Hirugarrena. Gure alderdian norberak erabakitzen du bere etorkizun politikoa, ez gara sekta bat. Bitartean, Hamaikabat alderdiko ordezkaria den heinean Hamaikabaten politikak defendatuko ditu bere lan- eta gogoeta-esparrutik.

Azkenik. Hamaikabat alderdi politikoan barne gogoetak egitera oso ohituta

gaude; egin ditugu, egiten ari gara eta egingo ditugu.

N. ETak jarduera armatua behinbetiko amaitzea erabaki duela jakinarazi zuen iragan urrian. Geroztik hona, eman dira hainbat pauso. Bakegintza arloan, itxaropentsu izateko garaia dela uste al duzu?

L. M. O. Orain dela urtebete baino hobeto gaude. Hori esanda, hainbat ñabardura eta zehaztasun egin behar dira.

ETA, izaera militarra duenez, “behinbetiko” amaitu duela bere “zeregin militarra eta kohertzitiboa” esatea askotxo da. Beste urrats bat falta zaio, eta denok dakigu, desagertzea da; estruktura militarra moduan gutxienez.

Azken hamarkadetan odol asko isuri da, beldurra eta jazarpena bizi izan “ditugu”, mehatxuak, torturak... Egoera horri buelta ematen urteak igaroko ditugu. Munduan eta historian zehar gertatu izan diren indarkeria egoerek horrela erakusten digute.

Elkarbizitzaren erronka dugu aurrez

aurre. ETaren desagertzea beharrezkoa da baina ez nahikoa. Gure herrian, Usurbilen, azken hamarkadetan erroturik daude beldurra, sufrimendua, ezberdin pentsatzen duenari jazarpena, gorrotoa, mendeku irrika eta askatasun nahia.

Hamarkada hauetan gertatu denaren “egia” zor zaigu; biktima guztien aitortza gauzatu behar da eta kultura politiko berri batean aritu. Eta azken honetan, “ezker abertzalea” bere buruari deitzen dionak, edozein formula eta izen erabiltzen dituelarik, bide asko du egiteko.

Elkarbizitza ez da lortzen ETA desagertuaz soilik. Lehen esan dudana bezala beharrezkoa da baina ez nahikoa. Inposizioaren, jazarpenaren eta manipulazioaren kulturak ez du lekurik garai berrian.

N. Besterik gehitu nahi?

L. M. O. San Juanak pasa berri ditugu, primeran gainera.

Santa Ixabelak gainean ditugu, eta beraz, usurbildar guztiei ondo-ondo pasatzeko opa diet.

Jose Aizpurua
Unanue eraikuntzak S.L
 teilatuak eta fatxadak
 943 37 38 79 - 620 80 01 86
 Kale Nagusia 14, Behea (atzekaldea), LASARTE-ORIA

LATAILLADE
ITURGINTZA
 Gasa, berogintza, klimatizazioa, instalazioak
 eta mantenimendua
 Aristitxo 8, behea 943 363 348 - 609 888 021

Ondo pasa
Santixabeletan!

Otar-Goxo

E f i k a g a i a k



Santixabel festak ospatzeko
produktu goxoenak!

· harategia · urdaitegia · frutak
· barazkiak · kontserbak · berezitasunak

Zubiaurrenea, nº2 • ☎ 943 36 55 81



Herri osoa enteratuko da...
Zure publizitatea hemen



Kontsulta itzazu publizitate-tarteen prezioak

943 360 321 publizitatea@noaua.com www.noaua.com

SAN JUAN JAIAK 2012

WWW.NOAUA.COM WEB ORRIALDEKO ARGAZKITEGIAN IKUSGAI.
ESKUKO TELEFONOAREN BITARTEZ ERE IKUS DEZAKEZU,
KODE HAU BALIATUZ.



ZUREAK ERE GURE WEB ORRIAN IKUSI NAHI?

BIDALI SAN JUANETAN ATERA DITUZUN ARGAZKIAK.
ERREDAKZIOA@NOAUA.COM HELBIDERA ETA DAGOENEO SAREAN
DIRENEKIN BATERA IPINIKO DITUGU ZUREAK

Gune autogestionatu bat sortzeko bidean, hausnarketa prozesu betean da ITAYA

Jendaurrean aurkeztu eta lan taldeak martxan jarri zituenetik urtea bete berri duen honetan, hausnarketa prozesu betean da ITAYA Gazte Asanblada. Norbanako zein eragilean iritziak jasotzen ari dira azken aldian, eta bilera erronda horretatik, aurrera begirako erronka marrazten hasiak dira; norbanako zein talde guztiak barne hartu eta ekimenak gauzatzeko aukera eskainiko duen gune autogestionatu bat sortzeko egitasmoa.

NOAUA! Zein da gaztetxe proiektuaren ideia jatorria?

Onintze. Hasteko eta behin Marasma mugimenduarekin herri mailan diagnosi bat atera zen eta pentsatu genuen talde bat sortzea, gazte asanblada bat. Lan taldeetan banatu eta ikusi dugunean gai garestuak ekimen batzuk aurrera ateratzeko eta jendearen parte hartzea egokia dela ikusita, ondorio batera iritsi gara; herri honetan hutsune handi bat dagoela, gune autogestionatu baten beharra dago.

ONINTZE, ITAYA

“Ezer egin aurretik, prozesu parte hartzailea denez, denen hitza kontuan izan nahi dugu”

N. Gaztetxe kontzeptua baino herriko etxe bat sortu nahi duzue ezta?

Beñat. Gaztetxe hitzak gazteen etxea esan nahi du, baina leku askotan ikusi da hori ez dela kasua. Azkenean, norbanako edo eragile desberdinek nahi duten ekimena aurrera eramateko tresna bat da.

O. Egia da aurreiritzi asko dagoela, jende askok pentsatzen du gazteentzako leku bat dela eta hori ez da horrela. Guk behintzat ez dugu hala izatea nahi. Gaztetxe bat izatea nahi dugu, beti ate irekiekin, estereotipo horiek hautsiz. Denak bertako parte sentitzea nahi dugu.

N. Beste zer ezaugarri bete beharko



UDAZKENEAN, ERNIOKO KOBAZULOETAN IZAN ZIREN ITAYAKO HAINBAT LAGUN.

lituzke planteatzen duzuen gune autogestionatuak?

O. Auzolanean oinarriturikoa, modu asanbleario batean funtzionatu duena. Badakigu egiteko lan asko dagoela, baina kontsumo aisialditik kanpora halako zerbaitek gehiago beteko gaituela iruditzen zaigu. Askoz aberasgarriagoa izango litzaiteke dena. Azkenean aurreiritzi horiek hausteko, badakigu ekintza dela hobereena hitzak baino. Martxan jartzen denean, gunearen inguruan jende askoren ideiak aldatuko liratekeela uste dugu.

N. Prozesu parte hartzaile bat burutzen ari zarete, elkarrizketa erronda baten bidez. Orain arte, zer erantzun jaso dituzue?

O. Ezer egin aurretik, prozesu parte hartzaile denez, denen hitza kontuan izan nahi dugu, ez dadin izan ITAYAK bakarrik planteatu duen zerbait. Txerriki antzerki taldearekin, Nafartarrak, Usurbiltzen, Bota Punttuba, Teatreroak Antzerki Taldea, Usurbil Eginez, Hamaikabat, Ziortza, AEK... eragileekin egon gara. Erantzun dezente jaso ditugu eta orain, norbanakoei elkarrizketak egiten hasi behar dugu. Orokorrean denek, Usurbil oso instituzionalizatua dagoela onartu dute. Badaudela baliabideak, baina gero eragileen arteko komunikazio hori ez dela behar bezainbestekoa. Eta orokorrean gauza positiboak entzun ditugu, animuak ere jaso ditugu. Adibidez,

kantu taldekoek ez zuten espero euren gona joatea. Eurekin kontaktu izana gustatu zaie.

Gune autogestionatuaren proiektu interesgarria, “guretzat eta atzetik datozenentzat”

NOAUA! Lokalena, herrian indar handia duen fenomeno dugu. Zuek horrekin hautsi nahi duzue. ITAYAREN urtebeteko ibilbidean zehar esan dezakezue, helburua bete-tzen hasi zaretela?

Beñat. Nik uste fenomeno ez duela hautsi, baina bai lortu dugu lokal desberdinetan ibiltzen diren koadrilak komunikatzen hastea. Baina noski oraindik lokalak existitzen dira eta inkomunikazio hori existitzen da. Ekimen eta bilera desberdinetan batu arren, oraindik badago bakoitzak bere aldetik doan fenomeno hori.

Onintze. Usurbilen 16 urte arteko-entzat Gazteleku dago. Baina gero zer geratzen da herri honetan? Atzera begirata, gaztetxeok ikusiko dutena da, koadrilaka lokal bat hartu besterik ez dagoela. Horrek inkomunikazio handia ekartzen du. Horregatik, bai guretzat eta atzetik datozenentzat, gune autogestionatuaren proiektua interesgarria dela iruditzen zaigu.

“Gaztetxe bat ez da helburua, tresna bat baizik”

NOAUA! Elkarrizketa errondaren ostean zeintzuk dira eman nahiko zenituzketen hurrengo pausoak?

Onintze. Beraien hitza kontuan hartuko da. Zeretik sortzera goaz, orduan ez dugu gure irizpideetan bakarrik oinarritzerik nahi, baizik eta besteenetan. Jasotako erantzunetatik ondorio batzuk ateratzen saiatu gara. Ondorioetako bat da, gaztetxe bat ez dela helburua, tresna bat baizik helburu batzuk lortzeko. Beste bat; aurreiritzi horiekin hautsi egin behar dela.

Beñat. Gainera, Udalarekiko mende-kotasun edo erosotasun horrek eragile bakoitza bere aldetik joatea eta inkomunikazioa bultzatzea ekarri duela ondorioztatu dugu. Bilgune bat izateak eta bertan autogestionatzeak berriz ere, kolektibo bezala batasun eta indar hori ekarriko lukeela uste dugu.

N. Planteatu duzue nola gauzatzen hasi gune berri hau?

O. Ez dakigu zer eraikuntza beharko duen, baina argi dugu izan beharreko ezaugarriak. Herriko erdigunean kokatu beharko luke, eta Usurbilek dituen beharrei egokitua. Oraingo prozesu honen ostean dator beste lanketa hori. Badakigu ez dela erraza.

Oraingoz hasiera positiboa izan da,



ITAYAREN EKIMENAK HARRERA POLITA IZAN DU, “GAZTE ETA HELDU ASKOK ILUSIOZ” HARTU DUTELA ADIERAZI DIGUTE.

batez ere entzun dugunarengatik, gazte eta helduago askok ilusioz hartu dute berri hau.

Kontziente dira, gazte mugimendurik gabeko epe bat egon dela herri honetan.

Festa giroko ekitaldia gaztetxearen alde

NOAUA! Gaztetxearen aldeko hitzordua deitu duzue festetan. Zergatik eta zertarako?

Beñat. Festak izanik, prozesu parte hartzaileari amaiera eman eta ondoren etorriko litzatekeenaren muga moduan, manifestazio bat egingo dugu jai giroan. Deia egiten dugu atxikimendua eman diguten norbanako zein eragileei hurbiltzeko eta hurbildu nahi duen edonori kamiseta gorriarekin eta kolorez gorritz etortzeko, umorez eta ondo pasatzera. Santixabel egunean izango da, 19:00ak aldera frontoi atzetik abiatuta.

O. Ibilbidea egin eta gero Askatasuna plazan testu bat irakurriko dugu orain

arteko prozesua laburbilduz. Abesti bat sortu dugu, bideo bat emango dugu baita atxikimendua eman diguten eragileekin.

N. Zer esan nahi zeniekete herriko gazteei?

O. Lotsak eta gainerakoak etxean utzi, eta atea irekita daudela azpimarratu nahi dugu. Beraiek buruan dituzten ideiak lasai asko plazara ditzakete. Beraiekin kontatu nahi dugu, guretzat askoz positiboa da geroz eta jende gehiago egotea, ze azkenean jende desberdina biltzeko gune bat da. Parte hartu beldurrik gabe.

“Urtebetean

martxa handia hartu dugu”

N. Zer esan dezakezue ITAYAk osatu duen lehen urteko ibilbideari buruz?

O. Pertsonalki oso aberasgarria egin zait, batez ere adin desberdinetako gazte pila bildu garelako eta harremana egin dugulako denen artean. Elkartuta eta gogoarekin gauzak egin daitezkeela konturatu gara.

B. Urtebetean martxa handia hartu dugu. Horrela jarrai dezala.

usurbilgogaztetxea@gmail.com

Oporrak hartuta, udako txokoen garaia da

Joan den ostiraletik udako oporraldi betean dira Udarregi Ikastolako ikasleak. Baina haietako askok ez dute aspertzeko beta handirik izango. Santixabelak igarota, uztailaren 3an, asteartearekin hasiko da aurten, Usurbilgo Udalak eta NOAUA! Kultur Elkarteak antolatutako Udajolas ekimena. Uztailaren 27ra arte, astelehenetik ostiralera eta lau orduz, 9:30-13:30 artean jolas edota irteera desberdinetan parte hartzeko aukera izango dute.

Aginagan eta Zubietan ere datorren astetik aurrera martxan izango dira udako txokoak. Aginagan uztaila amaierara arte luzatuko dira, Zubietan abuztua amaitu artean.

Zubietako Udako Txokoak

Zubietako udako txokoei uztailaren 2an emango zaie hasiera. Eskola Txikietan, honako ordutegian: 9:30etik 13:30era.

Ordaindu beharreko kuota hau izango da. Eskola txikitan matrikulatuta dauden haurrak: hilabete osoa, 100 euro. Hamabostaldia, 70 euro.



UZTAILAREN 3AN HASIKO DA UDAJOLAS.

Beste eskoletan matrikulatuta dauden haurrak: hilabete osoa 110 euro, hamabostaldia 80 euro.

Kuota 2101 0048 21 0004157517 kontu korrontean sartu beharko da.

Kutxako ziurtagiriko azalpenean haurraren izena eta abizena jarri behar da.

Gaztelekuko ekitaldiak

Honez gain, Gaztelekukoek ere 12-16 urte arteko usurbildarrei zuzenduriko udako ekitaldi eskaintza zabala prestatu dute:

Ekainak 28, osteguna

15:45-19:30 Zarauzko hondartzara irteera.

Nori zuzendua: DBH 1-2.

Uztailak 5, osteguna

10:45-19:00 Donostiara piraguismoa egitera.

Nori zuzendua: DBH 2.

Uztailak 6, ostirala

11:00-19:00 Hendaia irteera. Tren geltokitik hondartzara oinez.

Nori zuzendua: DBH 2.

Granollers Cup txapelketan parte hartuko dute eskubaloit taldeek

Kirok urtea amaitu duten arren, udako oporraldian murgildu aurretik beste hitzordu bat dute eskubaloit taldeek. Granollers Cup txapelketa ospetsuan parte hartuko dute, asteazken honetan, ekainaren 27an. "Mundu mailan eskubaloit txapelketa handienetako bat da, Kanadatik Australiara eta Errusiatik Txilera, Afrika, Asia eta Europako beste taldeak ahaztu gabe... Munduko ia nazio guztietatik taldeak joaten dira", adierazi dute Usurbil Kirol Elkartetik.

Bestalde, Leioako C.D. Askartza

Claret klubak ekainaren 9rako antolatutako Ander Manzanedo 2012 txapelketan parte hartu zuten alebin eta infantil mailetako herriko eskubaloit taldeek. Usurbil Kirol Elkartetik berri eman dutenez, 1.500 lagun inguru bildu ziren Bizkaiko udalerrin honetan, Euskal Herrikoekin batera, Galizia, Asturias, Andaluzia, Gaztela, Aragoi edota Frantziatik bertaratutako taldeei esker. "Benjamin, alebin, infantil, kadete, jubenil, senior eta beterano, neska zein mutil, izan ziren bertan parte-hartzaile. Eskubaloitaren festa ikaragarria!", nabarmendu dute Usurbil Kirol Elkartetik.

Kikik eta Kokok frontoia bete zuten

Ni natura naiz izeneko emaldia eskaini zuten Kiki eta Koko pailazoek, joan den ekainaren 19an frontoian. NOAUA! Kultur Elkarteak "Plis plas txalo eta jolas" izeneko ekimenaren baitan antolatutako hitzorduak, pilotalekua haur eta gurasoez bete zuten.



Mikel Markez, kantu taldekoen azken entseguan

Iragarri bezala, ikasturte hau modu berezian borobildu nahi zuen Usurbilgo Euskal Kantu Taldeak. Eta baita lortu ere. Kantu zaleak, ezohiko lekuan bildu, Udarregi Ikastolan beharrean Artzabalen, eta aurpegi ezagun baten bisita izan zuten joan den ekainaren 19an; Mikel Markez abeslariarena.

"Jendea kantu-gosez etorri zen eta Mikel Markezek kantu bakoitzaren kontestua, nola sortu zen, kantuaren historia kontatu ondoren denok batera kantatzen genuen. Euskal kantugintzaren eboluzio historikoa eta hainbat gertakizun bitxi kontatu zizkigun, ordu

eta erdiko egonaldi erakargarri bat egin zuelarik", adierazi diote NOAUA!-ri Kantu Taldetik. Ondokoa, antolatzaileek NOAUA!-ra helarazi diguten aipatu ekitaldiko argazkia dugu.

Jaietan, kantu-zikiro-jana

Kantu Taldekoek Mikel Markezekin agurtu dute entsegu saioen denboraldia. Baina kantu zaleek udako oporraldian murgildu aurretik beste hitzordu bat dute asteburu honetan. Ez baita ahaztu behar, ekainaren 30a hilabete honetako azken larunbata dugu. Ohi bezala, kantu-jiraren hitzordua. Oraingoan ordea, Santixabeletan egonik, aurreko urteetan bezala, hitzordua



KANTU ZALE UGARI BILDU ZEN ARTZABALEN.

jai egitarauan integratu dute. Larunbat honetan, eguerdiko 12:00etan hasiko dute saioa, Kuxkuxtu txarangaren laguntzaz. Kalejiran ibili ostean, Askatasuna plazan ospatuko den zikiro janean bilduko dira.

Giro ederrean jan, edan eta abesteko aukera egongo da.

Jaietan, Indarkeria Sexistarik Gabeko Txokoa

Dema plaza ingurutik Askatasuna plazara doan etxe azpiko pasabidean, "Indarkeria Sexistarik gabeko txokoa" kokatuko dute ostiral arratsaldean, 18:00-21:00 artean.

Usurbilgo Udaleko Parekidetasun Zerbitzutik berri eman dutenez, hainbat informazio eta material eskuragarri jarriko dute. Gainera, herriko indarkeria sexistaren aurkako horma eraikiko da bertan. "Denok dugu zer esan eta zer egin indarkeria sexistaren aurrean eta jaietan zehar txokora bertaritzen direnen artean lema, ikur eta abarrek osatutako harresi mural bat sortzea izango da helburua", adierazi dute Parekidetasun Zerbitzutik.

Txapak sortzeko ere aukera egongo da. Hau guztia, ostiral arratsalde honetan, ekainaren 29an.

"Merezi du!"

Usurbilgo Udaleko Parekidetasun Zerbitzutik urtean zehar antolatu den autoestima tailerreko emakume taldeak, balorazio ezin hobea jasotzen duen idatzia helarazi dio NOAUA!-ri. Hona hemen, taldeak bidalitako testua bere

osotasunean:

"Autoestima tailerrean parte hartu duten emakumeak gara eta gutun honen bitartez, ikastaroan ikasitakoa helarazi nahi diegu Noaua!-ko irakurleei.

Tailerra hunkigarria, sakona, kontrastu sortzailea izan da. Beste angulo batetik ikusi dugu errealitatea. Hainbat hitz datozkigu gogora bertan ikasitakoaren ondoren: irribarrea, malko bat, esku baten berotasuna, laguntasuna, begirada baten ezetza, taldearen sostengua, indarra, konplizitate, hamaika sentipen, pentsamendua dantzan...

Norberak era desberdinean bizi izan du esperientzia; bata bestearekiko konpara ezina dena. Argi izan dugu, hala ere, bakoitza bakarra dela, parerik gabekoa: berezitasunean aberatsak gara eta biziki garrantzitsua da norberak duenaz jabetzearen kontzientzia izatea.

Mila esker Pepa, gure bizitzako laberintzoan zehar ibilaldia egin eta bertatik nola irten behar den irakasteagatik.

Eskerrik asko bidaia hau ahalbidertzen duten guztiei: Pepa, Parekidetasun saila, Emakume sailari



MATERIAL UGARI EGONGO DA ESKURAGARRI.

eta emakumearen eta gizartearen aldatzeko alde egiten duten guztiei. Mila esker, jarraitu nahi dugu".

Uztailaren 9an DYAren ikastaro berri bat hasiko da

Uztailaren 9an, Usurbilen Sorosle eta Lehen Sorospen ikastaro berri bati hasiera emango dio DYA Gipuzkoak. Ikastaroaren iraupena bi asteak izango da, goizeko 10:00etatik 13:00era, asteleheneetik ostiralera. Ikastaroa Zaharren Egoitzan izango da (Gure Pakea Elkarte). Ikastaroa herritar denei irekia dago. Izena emateko edo informazio gehiago jasotzeko, 943 46 46 22.

VII. Kayak jaitsiera, larunbatean



ORIA IBAIA GARBITZEN ARITU ZIREN EKAINAREN 16AN.

Larunbat honetan ospatuko da, Santixabeletako VII. Kayak jaitsiera. Ekitaldia, goizeko 9:30ean hasiko da, Zubietako Aliri paretik. Puntapax Kano Kiroel Elkarteak antolatu du ekimena. Baita joan den ekainaren 16an, Oria ibaia garbitzeko hitzordua ere.

Antolatzaileek deialdi hartako balorazio positiboa egin dute, NOAUA!-ra helarazi duten idatzi honen bidez:

“Goizeko 9:30ak, giro aparta eta Santueneko zubian ibaia garbitzeko deialdia. Bat-bateko etsipena, bolondres gutxi. Harridura, aurpegi ezezagun dexente. Aurkezpena, Ur Gardeneko taldea. Lan banaketa eta ekintzari hasiera eman genion; beraiek lurretik eta gu piraguekin ur ertzetik. Zaborra ugari. Gainezka. Goiza joan ala iritsi da eguerdia eta zabor mordera bilduta. Jasotako zaborrak non utziko eta agindutako kontainerak falta!! Dezepzioa. Puntapax 10 helbidean emandako hitza bete ez izana.

Ur Gardeneko bolondres guztiei gure esker ona eman diguten lekzioarengatik, bai Puntapax Kanoaren izenean eta Usurbilgo herritar guztienean. Kanpotik etorri behar baita etxekoei irakastera eta beren bazterrak garbitzera.

Zabor ugari jaso da baina ugari geratu da jasotzeko. Geratzen den hori beste maila bateko zaborra dugu, uholdearen eraginez inguruko baratzetatik eroritakoa. Gure ustez ez legoke gaizki udalak bertako jabegoen kontzientzian pittin bat eragitea eta inplikazioa eskatzea denen mesederako izango baita”.

Zubietako errebote taldea

Zubietako taldeak, aurtun, Iparraldeko Erreboteko 2. Mailako Finala jokatuko du. Igandean, Sarako erreboteko plazan Senpereren aurka 13-7 irabazi ondoren. Hauek dira taldekideak: Joseba Aizpurua, Josu Aizpurua, Ugaitz Rezola, Imanol Aizpurua eta Jon Argote. Finala uztailaren 12an jokatuko dute, Donapaleuko plazan (Behe Nafarroa), goizeko 10:30ean.

Usurbilgo Pilota

Txapelketako finalak

Uztailaren 2an astelehena bi finalak jokatuko dira, arratsaldeko 17:00etatik aurrera.

JUBENILAK

Labaka-Iruretagoiena / Untxalo-Goñi
(Bidegoien) (Baztan)

NAGUSIAK

Azpiri-Zubiri / Santxo-Landaburu
(Bidegoien) (Usurbil) (Elorrio)

Paleta Goma

Txapelketako finalak

Udaberri honetan jokatu dira paleta goma txapelketako jardunaldiak. Finalak, gizonetzkoena zein emakumezkoena, ekainaren 27an asteazkena jokatuko dira, arratsaldeko 17:30ean. Finalekin batera, kirol egokituko adiskidantzazko pala partidak ere ikus ahal izango ditugu.

Haurrentzat

bizikleta ginkana

Ikasturte honetan martxan jarri den Irisasi BTT taldekoek ere, ekimen berri bat antolatu dute egunotan ospatuko diren jaien baitan. Larunbat goizeko 10:30etatik aurrera, haurrentzako ginkana prestatu dute. Ekimenen parte hartzeko bizikleta eta kaskoa eramatea ezinbestekoa izango da. Hitzordua, larunbat goizeko 10:30etan, Puntapaxeko zubian.

ARGILAN

INSTALAZIO ELEKTRIKOAK

629 272 859 eta 943 36 13 80

BORDA-BERRI 5, baxua USURBIL

www.noaua.com

USURBILGO ATARIA

Pirinioetako irteera, uztailaren 14 eta 15ean

Urtero moduan, Santixabelak amaitu ostean, asteburu pasa antolatu ohi dute Andatza Mendizale Elkarteak. Ekainean Errioxan egon ostean, Aurten Piedrafitako zirkora joango dira. Asteburu pasara joateko izen ematea zabaldu dute jada.

Ikasleek eta taldeko bazkideek 60 euro ordaindu beharko dituzte, gainerakoek 65 euro, "aterpeko pentsio erdia eta autobusa barne direlarik. Izena ematerakoan 20 euro jarriko dira". Ohi bezala, ordainketak Andatzakoek Kutxan duten kontu korronte zenbaki honetan egin beharko dira, uztailaren 9a baino lehen: 2101 0069 16 0121883656.

Asteburu pasaren inguruko argibide guztien berri emateko, uztailaren 12an bilera antolatu dute Andatzakoek, 19:00etan Sutegin. Hona hemen, bi egunetarako lotu duten programa (informazio gehiago, andatzamendizale.info web orrialdean).

Uztailak 14, larunbata

6:30ean irteera autobusez Oiardo udal kiroldegiko aparkalekutik. Sallent de Gallegora iritsi eta La Sarratik abiatuko gara, Paso del Onso aldera. Arrieleko lakuak ikusi ondoren Respomusoko aterpera iritsiko gara bertan afaldu eta lo egiteko. Ibilbidea 5 ordu ingurukoa izango da.

Uztailak 15, igandea

"Aterpean gosalduta ondoren, GR-11 ibilbideari jarraituko diogu eta Llena



ANIE MENDIA.

Cantal lakua igaro ondoren Tebarraiko lepora iritsiko gara, gailurreko bidea hartzeko. Kontuz ibili beharreko azken ertza igaro eta, Tebarraiko gailurrera iritsiko gara. Gailurrak 2.916 m ditu eta bistak zoragarriak dira. Infiernos, Garmo Negro, Argualas, Facha, Balaitus, Frondellas, Telera, Midi d'Ossau edo urrutiko Vignemale, Taillón, Perdido, Petrechema eta Anie ikusteko aukera izango dugu eguraldia lagun bada. Gailurra utzi eta berriro lepora jaitsiko gara. Infiernoseko lepoa igaro eta Ibones Azules eta Bachimañako urtegitik pasako gara, beheantza hartu eta Panticosara iristeko. Ibilbidea 7 ordu ingurukoa izango da. Ondoren autobusez Usurbilera itzuliko gara.

Eskalada ikastaroa prestatzeko bilera

Uztailaren 7 eta 8rako Andatza Mendizale Elkarteak antolatu duen eskalada ikastaroa prestatzeko bilera deitu dute, hilaren 5erako 19:00etan Sutegin.

Herri kirolen ikuskizuna, igandean

Tradizioz, Santixabeletako jai egunean, igandez ospatzen dira herri kirol probak. Aurtengoa ez da salbuespena izango. Goizez, 11:30etatik aurrera Euskal Herriko trontza eta aizkolari gizonen gazteen txapelketa jokatu da.

Arratsaldean, 18:30etan hasita, lehenbizi idi proba, Olasagasti eta

Telleriarekin. Jarraian, harri jasotze erakustaldia. 131 kg pisatzen duena altxatzeko lanetan jardungo du, boskote honek: Telleria II, Eizmendi, Izeta III, Ugartemendia eta Urrutia. 100 kiloko harriarekin erakustaldi bikaina eskainiko dute bestalde, Telleria IV eta Perras gazteek.

Kirol Patronatuaren udako eskaintza

Uztailaren 4tik 20ra, helduentzat hobekuntza ikastaroa igerilekuan, mantentze gimnasia, aerobik, pilates, spinning.

8-10 urte arteko gaztetxoentzat, "Kirolarekin jolasean" ekimena antolatu dute. Igeriketa, herri kirolak, talde kirol eta jolas desberdinak, pilota palaz, tenisa, badminton, mendi bizikletekin txangoak, patinak, psikomotritzitatea material ezberdinekin, jolasak, txapelketak... Etxeko txikienei zuzenduriko igeriketa ikastaroak ere antolatu ditu Kirol Patronatuak. Informazio gehiago edo izen emateko: 943 372 498 edo kirolpat@usurbil.net

Haimar Zubeldia, Frantziako Tourrean

Larunbat honetan, ekainaren 30ean abiatuko da 2012ko Frantziako Tourra. Txirrindularien artean, usurbildar bat izango dugu aurten ere; Haimar Zubeldia. RadioShack-Nissan taldekoekin batera parte hartuko du. Talde burua Franck Schleck izango dute eta gainerako kideak, Cadel Evans, Andreas Kloeber, Chris Horner, Yaroslav Popovich, Fabian Cancellara, Jens Voigt eta Maxime Monfort. Lehen etapa, ekainaren 30ean Lieja-Lieja artekoa. 20 ibilbide osatu ostean, Pariseko helmugara ailegatuko dira uztailaren 22an.



RADIO SHACK TALDEAREKIN
ARITUKO DA TOURREAN.

Agenda !!

Ekainak 27 asteazkena
Paleta Txapelketen Finalak,
17:30ean frontoian.

Ekainak 30 larunbata
- Kayak jaitsiera, 9:30ean Alirin.
- Haurrentzat bizikleta ginkana
10:30ean Puntapaxeko zubian.
- Ekitaldia Askatasuna plazan,
20:00etan.

Uztailak 2 astelehena
Pilota Txapelketako Finala,
17:30ean frontoian.

Goardiako farmaziak

Ekainak 28, osteguna
Urbistondo, San Franzisko 1 Lasarte

Ekainak 29, ostirala
De Miguel, Kale Nagusia 32 Lasarte

Ekainak 30, larunbata
De Miguel, Kale Nagusia 32 Lasarte

Uztailak 1, igandea
De Miguel, Kale Nagusia 32 Lasarte

Uztailak 2, astelehena
Orue, Jaizkibel 2 Lasarte

Uztailak 3, asteartea
Rodriguez, K. Nagusia 42 Lasarte

Uztailak 4, asteazkena
Gil, Kale Nagusia 24 Lasarte

Uztailak 5, osteguna
Acha-Orbea, Hipodromo etor. 6 Lasarte

Uztailak 6, ostirala
Urbistondo, San Franzisko 1 Lasarte

Uztailak 7, larunbata
Orue, Jaizkibel 2 Lasarte

Uztailak 8, igandea
Orue, Jaizkibel 2 Lasarte

* *Larunbatetan, Usurbilgo bi farmaziak irekita egongo dira: 9:00etatik 13:30era.*

GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ
Echeveste, Elkano kalea 9, behea Hernani
Telefono zenbakia: 943 552 087.
Urte osoko egutegia jasotzeko bidali FARMA
25600 zenbakira (1,39 BEZ barne)

Udari begira, ordutegi aldaketa bus-taxi zerbitzuan

Datorren astetik aurrera, udako ordutegi indarrean izango da bus-taxi zerbitzuan. Goizez bakarrik ibiliko da, astelehenetik ostiralera orduotan: 7:30-8:30, 10:30-11:30 eta 13:00-14:00etan. Arratsaldetan ez da zerbitzurik izango, ezta abuztu osoan ere. Datorren astelehenean, Santixabel Eguna, Usurbilen jai eguna izango denez, bus taxi zerbitzurik ere ez da izango hilaren 2an.



UZTAILAREN 2AN EZ DA ZERBITZURIK IZANGO.

Larunbatean, ekitaldia Askatasuna plazan

Euskal preso eta iheslari politikoen eskubideen aldeko hileroko elkarretaratzea, ez da ohi bezala azken ostiralarekin batera ekainaren 29 honetan burutuko.

Santixabelak direla eta, urtero moduan, ekitaldia deitu dute Askatasuna plazan, baina larunbat arratsaldeko 20:00etatik aurrera.

Patxi Seguroaren erakusketa Artzabalen

Autunen (Frantzia) konfinatu-ara jarraitzen duen Patxi Seguroa herritarrak eginiko margolanak ikusteko aukera egongo da jai hauetan. Artzabalen hain zuzen, ekainaren 28tik, ostegunetik aurrera.

Udal diru-laguntzak eskatzeko epea ixtear

Urtean zehar aisialdiko begirale edo zuzendari titulua eskuratzeko prestakuntza saioetan parte hartu dutenek, euskaltegian euskara ikasten aritu direnek, edota UEU-ko ikastaroren batean egon direnek, ekainaren 29a azken eguna dute udal diru laguntzak eskatzeko. Informazio gehiago, Potxoenean (943 371 999).

Zumarteko bi kide Serbiako jaialdi batean

Uztailaren 4ean asteazkena Lau Haizeta akordeoi orkestrako kideak Serbian arituko dira. Bertan izango dira Zumarteko Itxaso Orbeagozo ikaslea eta Joxean Anduaga irakaslea.



Aliprox
kale Nagusia 10, USURBIL
943 361182



Okindegia-Gozotegia
LABE-GOXO


TAXI 24h
Jose Etxabe USURBIL
677 37 34 66
943 36 21 78



JUANTXO
BURDINDEGIA
Zubiaurrenea 8
943 370 008

IRABAZI AFARI BAT ZURE KUADRILLARENTZAT

Sagardoarekin lotutako hitz,
esamolde edota esaldiak biltzen ari gara.
Inoiz entzunak, zein asmatuak.

Bidali nahi adina proposamen:
lehiaketa@sagardogorenak.com  #gorenak

SARIA: 8 lagunentzako afaria GORENAK taldeko zuk nahi duzun sagardotegian.

Epea: Uztailaren 5a baino lehen. (Uztailaren 8ko Berrian jakingo da irabazlea).
Epaimahaia: Joxerra Garzia, Arantxa Iturbe eta Xabier Paya.




GORENAK
EUSKAL HERRIKO
SAGARDO GORENAK

WWW.SAGARDOGORENAK.COM

GUZTIOK NORABIDE BEREAN
EGITEN DUGU ARRAUN.
SEKULAKO EMAITZAK LORTUZ.
LEHEN-LEHENAK IZATEKO.

HORREGATIK DARAMAGU SAGARDOEN
EUSKAL SELEKZIOAREN TXAPEL BELTZA.



UDARREGI



IKASTOLA



On do p̄ḡa s̄n̄ t̄x̄ab̄el̄ak!!!



943 361 216

Udarregi Ikastola

Gernika ibilbidea. USURBIL

www.udarregi.com

www.udarregi.mundua.com